

SALMENTA ETA ITZULKETA BALDINTZA OROKORRAK

2024ko uztaila

Edukia

1. OROKORRA	3
2. SALTZAILEA IDENTIFIKATZEA	4
3. NOLA EROSI	4
3.1 Onartutako ordainbideak	5
4. EREMU GEOGRAFIKOA	6
5. PRODUKTUEN ESKURAGARRITASUNA	6
6. DENDAN JASOTZEA ETA EPEAK	6
7. PREZIOAK, ZERGAK ETA GASTUAK	7
8. DESKONTU KODEAK	7
9. BERMEA	7
10. ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA, PRODUKTU AKASTASUNAK ETA ALDAKETAK	8
10.1 Atzera egiteko eskubidea	8
10.2 Produktu akastunak	9
11. IRADOKIZUN, KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK	10
12. PRIVATUTASUN POLITIKA. DATUAK BABESTEAK	10
13. ERANTZUKIZUNA	11
14. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA	11
15. EROSKETA BALDINTZA OROKORRAK ALDATZEA	11
16. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA	12
17. FORUAK ETA AUZIAK EBAZTEA	12

1. OROKORRA

Salmentarako Baldintza Orokor hauek (aurrerantzean, "baldintza orokorrak") tokiko merkatariak (aurrerantzean, "saltzailea/k") bezeroekin (aurrerantzean, "erabiltzailea/k") online erosketak egiteko GO!!ETXEMARKET web plataformaren bitartez egiten duten produktuen salmenta arautzen duten terminoak eta baldintzak ezartzen dituzte; plataformaren domeinuaren izena www.goetxemarket.eus da (hemendik aurrera, "plataforma").

Plataformaren titularra CBT Comunicación y Multimedia S.L. da eta salmentak online egiteko tresna teknologiko bat eskaintzen du. Tresna horretan, "Marketplace" gisa, Etxebarriko udalak saltzaileen eskura jartzen du eta aukera ematen die plataforman ostatatutako banakako gune bat edo online denda bat izateko (hemendik aurrera, "online denda/k"), haien produktuak eskaintzeko eta saltzeko.

Horren ondorioz, plataformara sartzean eta online denda batean erosketak bat egitean, erabiltzailea ez da zuzenean Etxebarriko Udalarekin kontratatzen ari, online dendaren titular den saltzailearekin baizik. Etxebarriko Udalaren jarduera, nolahi ere, saltzailearen eta erabiltzailearen arteko bitartekaritza lanak egitea baino ez da, plataforma bidezko transakzioak ahalbidetuz.

Testuinguru honetan, baldintza orokorrak erabiltzaileei informazio argia, ulergarria, zalantzarik gabea eta egiazkoa emateko idatzi dira, modu iraunkorrean, errazean eta doan, dagokion saltzaileak produktuak online denda bakoitzaren bitartez saltzea arautzen duten baldintzei buruz.

Baldintza orokorrak erabiltzaileen eskura egongo dira, eta nahi dutenean plataforman bertan kontsultatu eta inprimatu ahal izango dituzte.

Online denda bakoitzean erosketak egiteko, erabiltzaileak baldintza orokorrak berariaz irakurri eta onartu behar ditu, horretarako prestatutako sistemaren bitartez; beraz, ezin izango da erosketak prozesua burutu, ezta eskaerarik egin ere, baldintza horiek alde aurretik onartzen ez badira.

Aurrez esandakoa alde batera utzi gabe, saltzaileek online dendan bitartez erabiltzaileen eskura jarritako produktu jakin batzuk baldintza berezi jakin batzuen (hemendik aurrera, "baldintza bereziak") mende egon daitezke; hala badagokio, baldintza orokorrak osatu edo aldatuko dituzte. Online dendetan erosketak bat burutu baino lehen, erabiltzaileak arretaz irakurri eta, hala badagokio, onartu egin beharko ditu dagokion online dendan eskuragarri dauden baldintza bereziak. Nolanahi ere, Etxebarriko Udalak ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain saltzaile bakoitzak zehaztu ditzakeen baldintza bereziei dagokienez, ezta baldintza orokorrei dagokienez ere.

Era berean, baldintza orokorren aplikazio eremutik kanpo geratzen dira erabiltzaileek saltzaileen plataformatik kanpoko webguneetan edo sistemetan egiten dituzten erosketak, nahiz eta kanpoko webgune edo sistema horietara online dendetatik birbideratuta iritsi. Erosketa horiek kasuan kasuko saltzaileak ezarritako baldintzen arabera arautuko dira.

2. SALTZAILEA IDENTIFIKATZEA

Erabiltzaileei jakinarazten zaie online denda bakoitzean egindako salmenta eskaintzen arduraduna denda horretan behar bezala identifikatuta agertzen den saltzailea dela.

3. NOLA EROSI

Erabiltzaileek lehen eskaera egiteko prozesuan (checkout) erregistratzeko aukera izango dute, dagokien inprimakia eta datu pertsonalak betez. Erregistro horrek aukera emango dio erabiltzaileari (i) eremu pribatura sartzeko "erabiltzailearen eremua" atalaren bidez; (ii) ondoren datuak aldatzeko, eguneratuta edukitzeko; (iii) erosketak kudeatzeko; eta (iv) sustapen eta eskaintza bereziak izateko, halakorik dagoenean.

Erregistroa amaitu aurretik, erabiltzaileak baldintza orokorrak onartu beharko ditu nahitaez; hala egin ezean, prozesua ez da burutuko eta, beraz, ezin izango da erabiltzaile erregistratu izan. Erregistroa burututakoan, nahi beste aldiz sartu ahal izango da eremu pribatura ("Erabiltzaile eremua" atalean dago), erabiltzaile izena eta pasahitz pertsonalak idatzita.

Erregistratu nahi ez duten erabiltzaileentzat, gonbidatu gisa erosteko aukera dago. Erosketa burutzean baino ez dira datuak eman behar, eta datu horiek ez dira gordeko hurrengo erosketetarako. Kasu horretan ere, nahitaezkoa izango da erosketa egiteko unean baldintza orokorrak onartzea.

Nolanahi ere, erosketa prozesua oso erraza da; izan ere, erabiltzaileak online denda bakoitzean erosi nahi d(it)uen produktua(k) aukeratu, produktu kopurua zehaztu eta erosketa organ gehitu besterik ez du egin behar. Produktu bakoitza hautatzean, horri buruzko informazio zehatza bistaratuko da:

- Produktuaren izena
- Saltzailearen nortasuna
- Produktuaren ezaugarriak
- Eskuragarri dauden koloreak/modeloak (dagokionean)
- Prestazio teknikoak, halakorik izanez gero
- Neurriak/Tamainak, hala badagokio

- Prezioa (BEZa sartuta)

Erosketa amaitzeko, erabiltzaileak erosketa-orgatxora joan beharko du, eta han zehaztuko dira hautatutako artikuluak, berrikusteko. Eskaera berrikusi ondoren, erosketa ordaindu beharko da hurrengo atalean ezarritako moduan. Erabiltzaileak sustapen kode bat edo online kupoi bat baldin badu, une honetan sartu beharko du, bertan adierazitako eta aplikatzekoak diren baldintza eta deskontuez baliatzeko.

Ordainketa baliozkotu ondoren, salerosketa kontratu bat ezartzen da erabiltzailearen eta saltzailearen artean, baldintza orokorrei eta, hala badagokio, baldintza bereziei atxikita. erosketak gaztelaniaz edota euskaraz soilik egin ahal izango dira, baina, hizkuntza edozein dela ere, baldintza orokorren 4. atalean deskribatzen den eremu geografikoan baino ezin izango dituzte eskaini produktuak saltzaileek. Erosketa prozesua amaitu ostean, erosketa berretsi egingo da erabiltzaileari bidalitako "eskaera berrestea" mezu elektronikoko baten bitartez. mezu horretan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira: eskaera zenbakia, produktu kopurua, horietako bakoitzaren deskribapena (hau da, ezaugarriak, prezioa, zergak).

Mezu hori ez jasotzearen arrazoia sareko komunikazioen aldi baterako arazoren bat izan daiteke, edo jakinarazitako helbide elektronikoa idaztean akatsen bat egin izana. Bi kasuetan, gomendagarria da egoeraren berri ematea helbide elektronikoko honetara: info@goetxemarket.eus.

Beste edozein zalantza argitzeko, erabiltzaileak mezu elektronikoko bat bidal diezaguke helbide honetara: info@goetxemarket.eus.

3.1 Onartutako ordainbideak

Plataformaren bitartez egindako erosketen ordainketa kreditu edo zordunketa txartelaren (Visa, MasterCard eta American Express) bidez egiaztatu ahal izango da. Aukeratutako ordainbideak gasturen bat eraginez gero, erabiltzailearen kontura baino ez da izango.

Kreditu- edo zordunketa-txartelaren bidez egindako ordainketa guztiak txarteletako datuak enkriptatzen dituen ordainketa-pasabide seguru baten bidez egiten dira.

Ordainketa pasabide horren bidez egitean, banku-sistemak eragiketaren baimena eskatuko du kode pertsonal baten edo autentifikatzeko beste sistema batzuen bidez. Autentifikazio hori baieztatzen bada bakarrik egingo da eragiketa. Bestela, transakzioa atzera botako da.

Aplikatzekoa den legedian xedatutakoaren arabera, erosketa baten zenbatekoa iruzurrez edo bidegabeki kargatu bada ordainketa txartelaren zenbakia erabiliz, txartelaren titular den erabiltzaileak kargua berehala deuseztatzeko eskatu ahal izango du. Kasu horretan,

saltzailearen eta txartelaren titular den erabiltzailearen kontuetan zordunketari eta berrordainketari dagozkion idatzoharrak ahalik eta lasterren egingo dira.

Hala ere, txartelaren titular den erabiltzaileak egin badu erosketa eta itzultzeko eskakizuna ez bada atzera egiteko edo suntsiarazteko eskubidea baliatzearen ondorio, erabiltzaileak ezetzatze horren ondorioz sortutako kalte-galerak ordaindu beharko dizkio saltzaileari.

4. EREMU GEOGRAFIKOA

Gaur egungo salmentaren eremu geografikoa, etorkizunean egin daitezkeen aldaketa eta/edo zabaltzeen mende dagoena, penintsulako Espainiako lurraldea eta Balear Uharteak dira, Kanariar Uharteak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak izan ezik; hala ere, Etxebarriko establezimendu fisikoetan eskaerak jasotzera mugatzen da.

5. PRODUKTUEN ESKURAGARRITASUNA

Online dendetan eskaintzen diren artikuluek izakinen mugak dituzte. Saltzaileak ezin badu hornitu erabiltzaileak erositako produktua, eskuragarri ez dagoelako edo stockik ez duelako, erabiltzaileari eskuragarritasun falta horren berri emango zaio erosketa amaitu aurretik, produktuaren fitxan bertan. Beraz, saltzailearen ardura da online dendan salgai dituen produktuaren stocka eguneratuta edukitzea.

Eskaera jaso ondoren stocka hausten bada, gertaeraren berri emango zaio erabiltzaileari, eta ahalik eta lasterren itzuliko zaio zenbatekoa.

6. DENDAN JASOTZEA ETA EPEAK

Erabiltzaileek GO!! ETXEMARKETen bidez erosten dituzten produktuak dendan bakarrik jaso ahal izango dira. Eskaera bakoitzari dagokion salmenta-txartela erantsi behar zaio.

OHARRA: Atxikitako establezimenduek eskaerak beren kabuz eta erantzukizunez bidaltzeko aukera dute, horretarako beren garraiobideez baliatuz, saltzailearen eta bezeroaren arteko harreman zuzena formalizatuz eta, edozein egoeratan, GO!! ETXEMARKET edozein erantzukizunetik bereziz.

Eskaera jasotzeko prest egon beharko da eskaera jasotzen denetik **gehienez 24 orduko** epean. Erosleak **gehienez 7 egun balioduneko** epean jaso beharko du bere eskaera, freskoen eta/edo galkorren produktuak izan ezik, horiek gehienez 24 ordukoak izango baitira, produktuak galkorrak direlako.

Produktuen gaineko erantzukizuna erabiltzailearengan geratuko da eskaera entregatzen den unean.

Erabiltzaileak online denda batean erosi duen produktua jasotzen duenean, erosi zuenarekin bat datorrela egiaztatu beharko du, egoera ezin hobean dagoela eta garraioan ez duela kalterik izan.

Jasotako produktua ez badator bat erabiltzaileak eskatutakoarekin, baldintza orokorren 10 atalean adierazitako bitartekoen bidez eman beharko du horren berri. Oker jasotako produktua erretiratu egingo da eta benetan eskatu duena bidaliko zaio, erabiltzailearentzat inolako kosturik gabe.

7. PREZIOAK, ZERGAK ETA GASTUAK

Online dendetan dauden prezioak eurotan egongo dira. Erabiltzaileak ordaindu beharreko azken zenbatekoa produktu bakoitzaren fitxan agertuko da, eta Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) sartuta izango du beti, une bakoitzean indarrean dagoen tasaren arabera, baita dagozkion gainerako zergak ere.

Saltzaileek online dendan eskaintzen diren produktuak edozein unetan eta aldeztatik jakinarazi gabe aldatzeko eskubidea izango dute, baita salmenta prezioak eta gainerako baldintzak edo sustapenak ere. Nolanahi ere, erosketa egiteko unean indarrean dauden baldintzak aplikatuko dira.

8. DESKONTU KODEAK

Sustapen kodeak sustapen bakoitzerako argitaratzen diren termino eta baldintzen arabera erabili ahal izango dira. Sustapen kodeak online denetan baino ezin izango dira erabili.

9. BERMEA

Online dendaren bitartez eskaintzen diren produktuak legez ezarritako bermeei atxikitzen zaizkie. Hori dela eta, saltzaile bakoitzak honela erantzungo du adostasun ezaren aurrean:

sALTZAILEAK **bi urteko epean** erantzungo du adostasun ezaren aurrean, produktuak entregatzen direnetik zenbatzen hasita.

Berme horretatik kanpo geratzen dira produktu kontsumigarriak edo galkorrak, baita erabilera edo manipulazio desegokiak eragindako hutsak ere.

Zentzu horretan, kontsumitzaile eta erabiltzaileen arloan aplikatzekoa den legedian xedatutakoari jarraikiz, produktuak kontratuarekin bat datozela ulertuko da, baldin eta jarraian adieraziko diren baldintza guztiak betetzen badira, salbu eta kasuaren inguruabarrengatik horietako bat ezin bada aplikatu:

- Saltzaileak egindako deskribapenarekin bat etortzea eta online dendan aurkezten den produktuaren ezaugarriak betetzea.
- Mota horretako produktuak erabili ohi diren erabileretarako egokiak izatea.
- Erabiltzaileak eskatutako edozein erabilera berezitarako egokiak izatea, kontratua egiteko unean saltzaileari horren berri eman dionean eta, betiere, azken horrek onartu badu produktua erabilera horretarako egokia dela.
- Erabiltzaileak espero dezakeen mota horretako produktu baten ohiko kalitatea eta prestazioak betetzea, produktu mota eta, hala badagokio, saltzaileak produktuen ezaugarri zehatzei buruz egindako adierazpen publikoak kontuan hartuta.

Horren guztiaren arabera, produkturen bat ez badator bat eskainitakoarekin eta baldintza orokorrekin, erabiltzaileak baldintza orokorren 10 atalean adierazitako moduan jakinarazi ahal izango du.

10. ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA, PRODUKTU AKASTASUNAK ETA ALDAKETAK

10.1 Atzera egiteko eskubidea

Kontratu batean atzera egiteko eskubidea kontsumitzaile eta erabiltzaile orok duen ahalmena da; hain zuzen ere, egindako kontratua indarrrik gabe uzteko ahalmena, eta beste alderdi kontratugileari horren berri eman behar dio eskubide hori baliatzeko ezarritako epean, erabakia justifikatu behar izan gabe eta inolako zigorrik gabe. Azken batean, eskaera justifikaziorik eman behar izan gabe itzultzeko aukera da.

Erabiltzaileak **14 egun naturaleko epea izango du eskaera jasotzen duenetik** atzera egiteko eskubidea baliatzeko, hau da, erosi duen produktua itzultzeko.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen arloan aplikatzekoa den legedian xedatutakoaren arabera, ez da atzera egiteko eskubidea aplikatuko honako kasu hauetan:

- Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen zehaztapenen arabera egindako ondasunen edo argi eta garbi pertsonalizatutako ondasunen horniduran.
- Azkar hondatu edo iraungi daitezkeen ondasunen horniduran.
- Osasuna edo higieena babesteko arrazoiengatik itzuli ezin diren eta entregatu ondoren zigilua kendu zaien ondasun zigilatuen horniduran.
- Entregatu ondoren, mota kontuan hartuta, beste ondasun batzuekin nahastu eta bereizi ezin diren ondasunen horniduran.
- Zigilatutako audio edo bideo grabazioen edo zigilatutako programa informatikoen horniduran, baldin eta kontsumitzaileak eta erabiltzaileak zigilua kendu badie entregaren ondoren.

Atzera egiteko eskubidea baliatzeko eta artikulu bat itzultzeko, erabiltzailea saltokiarekin harremanetan jarri beharko da, produktua itzuli nahi duela adieraziz. Nolanahi ere, itzulketa egingo da eroslea establezimenduan itzuli nahi duen produktuarekin agertzen denean eta saltokiak itzulketa onartzen duenean.

Produktua itzuli ondoren, establezimenduak aztertu egingo du, eta erosleak akatsik sortzen ez badu, eskaeraren egoera aldatuko du bere eremu pribatuan, automatikoki jakinaraziko diona GO!!ETXEMARKET-en enpresa kudeatzaileari itzulketaren onartzea eta erosleari ordaindutako zenbatekoa itzultzea.

10.2 Produktu akastunak

Baldin eta (i) itzulitako produktuak EROSLEARI egotz dakioken narriadura edo kalteren bat badu erosleak produktuaren izaera, ezaugarriak edo funtzionamendua ezartzeko beharrezkoa ez den manipulazio bat egitearen ondorioz; edo (ii) produktua ez bada osorik itzultzen, erosleari dagokio produktuaren balio murrizketa bere gain hartzea eta, kasuan kasu, ordaindutako zenbatekoa itzultzea ezinezkoa izatera irits liteke. Kasu horietan, egoera horren berri emango zaio erosleari posta elektronikoz, gehienez ere 15 egun naturaleko epean.

Nolanahi ere, dendak ez du bere gain hartuko inolako erantzukizunik eroslearen instalazioetan dagoen bitartean artikuluak zaintzeko edo gordailutzeko.

Produktu akastunen kasuan, produktua kontratuarekin bat ez badator edo tarak edo akatsak baditu, erosleak produktua konpontzea edo ordezteka eska dezake, bi aukeretako bat

objektiboki ezinezkoa edo neurrigabea denean izan ezik. Produktua konpontzea eta ordezteko doakoak izango dira eroslearentzat, bidalketa-gastuak barne, bai eta, hala badagokio, horretarako behar diren eskulanarekin eta materialekin lotutako kostuak ere.

Produkturen bat kontratuarekin bat ez badator eta/edo tararen bat edo akatsen bat aurkezten badu, erosleak ahalik eta lasterren jakinarazi ahal izango du.

Jakinarazpen horri erantzuteko, mezu elektronikoko bat bidaliko zaio erosleari, gorabehera konpontzeko, eta Baldintza Orokorretan ezarritako moduan artikulua itzuli dezan eskatuko zaio.

Behin dendak itzulketa jasotakoan, arretaz aztertuko da itzultitako artikulua, eta erosleari jakinaraziko zaio posta elektronikoz, gehienez ere **10 egun balioduneko epean**, hura konpondu edo ordezteko bidezkoa den ala ez (eskatu bezala). Erantzuna baiezkoa bada, ahalik eta lasterren gauzatu beharko da.

Konponketa edo ordezkapena posible ez den kasuetan, erosleak kontratua suntsiarazteko edo prezioa jaisteko eskubidea izango du.

11. IRADOKIZUN, KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK

Erabiltzaileek iradokizunak, kexak eta erreklamazioak bidali ahal izango dituzte, helbide elektronikoko honetara idatzita: info@goetxemarket.eus.

12. PRIBATUTASUN POLITIKA. DATUAK BABESTEAK

Online denda batean erosketak formalizatzeak saltzaileak bere datu pertsonalak tratatzea ekarriko du, saltzailearen erantzukizun eksklusiboarekin, erosketak gauzatu kudeatzeko eta erositako produktuak entregatzeko, eta bere pribatutasun-politika propioari lotuta.

Ondorio horietarako, erosketak adierazitako moduan formalizatzean, erabiltzaileak onartzen du CBT Comunicación Multimedia S.L.k, tratamenduaren arduradun gisa eta Etxebarriko Udalaren erantzukizunpean jardunez, bere datu pertsonalak saltzaileari lagatzea, eta ulertzen du lagapen hori transakzioa gauzatzeko eta erositako produktuak entregatzeko behar-beharrezkoak diren datuetara mugatzen dela, bai eta CBT Comunicación Multimedia S.L.k plataformaren bidez garatutako bitartekaritza-lanaren zati gisa ere.

13. ERANTZUKIZUNA

Saltzaileak izango du, beti, produktuei eta online dendetan eskuragarri dagoen informazioari, prezioari, salmenta-baldintzei, salmenta-prozesuaren kudeaketari, entregari, fakturei edo bestelako zerga-betekizunei eta bermeei edo itzulketei buruzko edozein erantzukizun.

Etxebarriko Udalak, bere bitartekotza-lana aintzat hartuta, saltzaileek eta erabiltzaileek negoziatu eta transakzioak egin ahal izateko gune bat eskaini besterik ez du egiten. Etxebarriko Udala ez da bi alderdiek formalizatzen duten kontratuaren parte, ez du inolako erantzukizunik hartzen, eta ez du saltzailearen ordezkari gisa jarduten.

14. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

GO!!ETXEMARKET Marketplace plataforma eta bere edukiak, dela programazioa, dela datu-baseak, testuak, irudiak, soinuak, animazioak edo ikus-entzunezkoak, dela egitura, antolaketa, antolaera eta diseinua, Etxebarriko Udalaren edo hirugarrenen jabetza eksklusiboak dira, eta jabetza intelektualari eta, hala badagokio, industrialari buruzko nazioarteko legeriak eta tratatuek babesten dituzte.

Aurrekoan ez dira sartuko establezimenduek sartutako edo emandako datuak eta edozein eduki, horien erantzukizuna eta eskubideak establezimenduei bakarrik baitagozkie.

Debekatuta dago paragrafo honen hasieran adierazitako elementuak legearen aurka erabiltzea edo ustiatzea, baita jendaurrean erreproduzitzea, eraldatzea, banatzea edo jakinaraztea ere, titularren berariazko baimen idatzirik gabe, baldintza horien arabera Marketplace plataformaren zerbitzuak erabiltzeko beharrezkoak diren erabilerak izan ezik.

Aurreko hori urratuz gero, dagozkion akzio zibil edo penalak gauzatuko dira, eta eragindako kalte-galeren erreklamazioa egingo da.

15. EROSKETA BALDINTZA OROKORRAK ALDATZEA

Baldintza orokorrak aldatzera behartzen duten lege aldaketak gerta daitezke. Nolanahi ere, balizko aldaketek ez dute atzeraeraginik izango aldez aurretik kontratatutako produktuetan.

Plataformara sartzen den bakoitzean indarrean dauden Baldintza Orokorrak irakurtzea gomendatzen zaio erabiltzaileari eta, nolana ere, online denda batean erosketak egin nahi duen guztietan, libreki erabaki dezan erabiltzen jarraitu nahi duen edo erosketak egin nahi dituen ere.

Nolana ere, erosketak bakoitza egiteko unean indarrean leudekeen baldintza orokorrak izango dira aplikatu beharrekoak.

16. APLIKATU BEHARREKO LEGERIA

Online denden bidez garatutako jardura merkataritza elektronikoaren, kontsumitzaileen eta eroslearen babesaren eta datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzekoa den Europako eta Espainiako indarreko legeriaren mende dago.

17. FORUAK ETA AUZIAK EBAZTEA

Erosleen eta saltzaileen artean sortzen den edozein eztabaida edo gatazka eskumena duten epaitegi eta auzitegietan bideratuko da, Espainiako araudiak prozesu-arloan ezartzen duenarekin bat etorritik.

Halaber, jakinarazten dizugu Zuzenbidean aukera duzula Europar Batasunaren online auziak ebazteko plataformara jotzeko, esteka honen bidez: <http://ec.europa.eu/consumers/odr/>.